64. zenbakia ~ 2021-05

2021eko BATZAR NAGUSIA, AURTEN ETXETIK ONLINE FORMATUAN

feuseelkartea@gmail.com

www.feuse.eus

2021/05

Farmaberri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

Bizitzen ari garen egoera dela eta, aurten ezin izan dugu batzar nagusia beste urtetan bezela lagun giroan ospatu. Aurten teknologiaz baliatuz online egin dugu batzarra, eta ondorengo bazkaria bakoitzak bere kabuz egin behar izan bazuen ere, era batean edo bestean elkartzea lortu genuen.

Hitz gutxitan, diru kontuak errepasatu eta onartu, urteko ekimenen errepasoa egin genituen.

Ekimenen artean hauek izan ziren garrantzitsuenak:

- Sefac-eko kongresuan Feuse saria eman zaio komunikazio onena aurkezten duen pertsonari. Lehenengo aldiz saritua izaango da Espainia mailan euskerazko komunikazio bat, eta horregatik oso garrantzitsua izan da bai guretzat baita euskerarentzat ere. Gainera, hamar komunikazio baino gehiago aurkeztu dira euskeraz.
- Feuseren 25. urteurrena dela eta, Farmaberri aldizkariaren ale berezi paperan inprimatu da eta komunikazio hedabide desberdinetan azaldu da Feusek 25 urte bete dituela.

Horretaz gain, Pello Iturria eta Amaia Garitanori zorioank eman zitzaizkien, lehenengoari COFNa Saria irabazteagatik eta bigarrenari lehen aipatutako Sefaceko kongresuko euskerazko komunikazio onenearen sariarengatik.

2021. urteari begira honako ekimenak proposatu ziren:

- Feuse saria pertsona edo instituzio bati ematea, euskararen alde egindako lanagatik.
- Egoerak baimentzen badu, udazkenean txango bat antolatzea.
- EHU/UPVrekin harremanak estutzea lankidetza hitzarmen baten bitartez.

Bestalde, urteroko proiektuak mantentzen jarraituko dugu, baina ez genuen aukera galdu nahi edozein iradokizun baduzu gogoratzeko aukera duzula email bitartez feuseelkartea@gmail.com gurekin kontaktuan jartzea.

Mila esker!



FEUSEREN 25. URTEURRENAK “ZE BERRI” ALDIZKARIAN IZAN DU BERE TARTEA

2021eko apirileko alean azaldu da

Ze Berri? euskararen sustapenerako eta soziolinguistikaren arloko gaien zabalkunderako argitalpen bat da. 1994. urtean hasi zen Nafarroako hainbat udalerritan banatzen eta gaur egun aldizkariak 95.510 aleko tirada du –Nafarroako tirada handiena duen aldizkaria bihurtuz- eta udalerrietako postontzietara iritsiz.

2021EKO APIRILA / ABRIL 2021 ZE? 2

TXALO ZAPARRADA : UN APLAUSO

Asociación de Farmacéuticos/as Euskaldunes

Un aplauso para la Asociación de Farmacéuticos/as Euskaldunes-Farmazialari Euskaldunen Elkartea (Feuse) por sus 25 años trabajando para potenciar el uso del euskera en las farmacias.

Esta asociación cuenta con 51 personas asociadas en Navarra y en total aglutina a 219 profesionales. Entre las múltiples actividades que llevan a cabo, destaca la creación del Diccionario digital de Farmacia en Euskera, en el que han colaborado Cinfa, Nafarco, el Consejo de Farmacéuticos de la CAV y la UPV, y que recoge 2.500 términos. También es importante su impulso de la lengua a través de premios y apoyos a trabajos científicos en euskera, así como la edición de una revista digital. El uhartearra Pello Iturria, farmacéutico de la calle Estafeta, es uno de los principales impulsores de la asociación y fue presidente de la misma hasta 2010.

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

IREKI DA 2021EKO FEUSEREN FARMABURUA ZEINI EMATEAREN BOZKETA

Botoa nola eman azaltzen dizugu beherago

“Farmaburua” saria farmazia arloan euskeraren erabilera bultzatzen duen pertsonari edota erakundeari ematen zaio. Azken urteotan Angel Garay (2018), CINFA laborategiak (2015) edota Pello Iturriari (2011) eman zaie.

Aurten, Feuseko kideek saria zeini emango lioketen proposatzeko aukera dute. Horretarako zure proposamena feuseelkartea@gmail.com emailera bidaldu behar duzu pertsona edo erakundearen izena jarriz eta hitz gutxitan zergaitia aipatuz.

Proposamenak ekainaren 30a arte jasoko dira eta ondoren Zuzendaritza Batzordeak hartuko du erabakia.

BERRI LABURRAK

FIBRILAZIO AURIKULARRAREN DETEKZIOA ETA PAZIENTE ARRITMIKOAREN KONTROLA KOMUNITATEKO FARMAZIAN

Sefac Kongresuan euskerazko komunikazio onenaren sariaren irabazlea

KASU KLINIKOA: FIBRILAZIO AURIKULARRAREN DETEKZIOA ETA PAZIENTE ARRITMIKOAREN KONTROLA KOMUNITATEKO FARMAZIAN

Garitano Ascasibar A.[1]
[1]**Farmacéutica comunitaria en Elgeta (Gipuzkoa)**
Gako-hitzak: fibrilazio aurikularra; komunitateko farmazia; disziplina anitzeko elkarlana

DESKRIPZIOA

59 urteko gizonezkoa, epilepsiaz diagnostikatua (Karbamazepinarekin tratamenduan 200mg 1-0-1) eta arrisku faktore kardiobaskularrik gabea, farmazian tentsioa neurtzen zaio. 111/76mmHg-ko tentsio arteriala, 102 pultsazio eta arritmia asintomatikoa detektatzen da. Arritmia pultsu erradiala hartuz konfirmatzen da eta larrialdietara deribatzen da. Pazienteak bi premiagatiko SEN ditu gutxiegi tratatutako osasun-arazoengatik (arritmia eta takikardia).

Larrialdietan fibrilazio aurikularra diagnostikatzen diote eta farmaziara doa preskribitutako tratamenduaren bila (Bisoprolola 2,5mg 1-0-0, Azenokumarola 4mg 14mg Asteko Dosi Totala (ADT) eta Enoxaparina sodikoa 120mg helburu den Indize Internazional Normalizatuaren (INR) balioa lortu arte).



JARDUERA

1. Tratamendu aktiboaren orria errebisatzen da *Medinteract bidez.* Karbamazepina induktore entzimatiko indartsua dela detektatzen da eta ziurrenik Azenokumarolaren ADTa handitu beharko dela. INRaren kontrola egitera doanean erizaina jakinaren gain jartzeak duen garrantzia azpimarratzen zaio pazienteari.

2. Azenokumarolari buruzko informazioa ematen zaio pazienteari ahoz zein idatziz (osasun zentroarekin adostutakoa).



ELKORO BOTIKA SINTROM

ZER DA?
Aho bideko antikoagulatzaile bat da, hau da, odolaren koagulazioa atzeratzen du tronbosia edota enbolia ekiditeko.
NOLA HARTU BEHAR DUT?
Antikoagulatzailea beti ordu berean hartzea komeni da (hobe afaldu baino ordu 1 (therapio) ohiturabilakatzeko eta horrela ahaztea zailagoa izango da. INR kontrolak maiz burutzea komeni da, batez ere, tratamendu hasieran.
DOSIFIKAZIOA
INRaren arabera burutzen da. INR balio optimoak pertsonen gehienngoan 2-3 artekoak dira nahiz eta kasu batzuetan, 2,5 eta 3,5 arteko balioak diren gomendagarriak. INRa balio optimoetatik kanpo badago ondorengo arriskuak dauda:
- INR >3-3,5 : balio altuak dira eta hemorragia arriskua dago.
- INR < 2: balio baxuak dira eta trombo arriskua dago.
DOSIA AHAZTUZ GERO
Egun bera bada lehen bait lehen hartu.
Hurrengo eguna bada ez hartu eta kontrolean erizainari jakinarazi. INOIZ EZ HARTU DOSI BIKOITZIK.
INRa ALDA DEZAKETEN ARRAZOIAK
-Pazientearen ohiko tratamenduan aldaketak (hasiera, bukaera, dosia, pauta).
- Hartzea ahaztea. Dosia bikoiztea.
- Infekzioak.
- Beherakoa.
- Alkohol kontsumo altua.
-Estresa, baraualdia.
-Urtaro aldaketak (uda eta udaberriak INRa jeitsi dezake).

KONPLIKAZIOAK
Hemorragiak dira arazo larrienak.
ARINAK: hemorragia bukiak(sudur, hortzoi, beltzuneak...). Hurengo kontrolean kontsultatu.
LARRIAK: beltzak edo pasta ibuurako gorozkiak, odola gorocki edo gernuan, baginako hemorragia, edula, epilean odola, bat-bateko burukomin handia. Larrialdietarako joan.
ELKARREKINTZAK
- Antiazidoak
- Gripearen aurkakoak.
- Analgesikoak.
- Antiinflamatorioak.
- Antidiabetikoak.
- Antibiotikoak.
- Antikoagulatzaileak etab.
ELIKADURA
K vitaminan aberatsa diren elikagaiak ekidin ahal den neurrian,hosto berdeko barazkiak: ilarrak, ziazerbak, zainzuriak, brokolia, pertexila, zerbak, kiwi, piku, manrubi, txokolate... Alkohol kontsumoa ekiditea ahaltzen da koagulazioaren kontrola zailtzen duelako.
OHARRAK
-Botika berri bat errezetatzen, diputeenean Sintrom hartzen duzula jakinarazi beti.
- INOIZ ez hartu zure kabuz medikamentu edo osagarririk mediku edo farmazialariari kontsultatu aurretik.
- Dentista edo zirujauarengana bazoaz antikoagulatzaileak hartzen dituzula esan.

3. Presio Arterialaren (PA) jarraipena eskaintzen zaio farmaziatik eta erizainarekin elkarlanean ADTaren araberako INRaren jarraipena burutzen zaio.

EMAITZAK

1. Erizaina komunitateko farmaziarekin harremanetan jartzen da elkarrekintza honen inguruan informazio gehiago lortzeko.
2. Pazienteak interbentzioa onartzen du.

3. Jarraipena burutzean PA eta pultsoaren balioak egokiak direla ikusten da nahiz eta, noizbehinka, arritmia adierazi. (1.taula) Azenokumarolaren ADT igotzen jarraitzen da kontrol zehatzarekin INR mailan sartzea lortu gabe (2.taula).

Urrian kardiologoarengana doanean Fibrilazio Aurikular Paroxistikoa duela esaten diote eta arrisku baxuko pazientea izanik (CHA2DS2-VASc 0 puntu) Azenokumarola kendu eta tratamenduan praktika klinikoko gidekin bat datozen aldaketak burutzen dizkiote (Flekainida 100mg 1-0-0 eta Bisoprolola 1,25mg 1-0-0) .

1.TAULA : PA eta PULTSOA

DATA	PA	PULTSOA *arritmia
19/09/07	100/71	69
19/09/09	110/76	98 *
19/09/23	109/69	95*
19/10/03	105/60	67
19/10/17	99/58	68
19/11/08	102/61	88*
19/12/09	109/74	90*
20/01/10	95/59	73
20/02/14	101/73	66

2.TAULA: INR ADTaren arabera

DATA	INR	ADT
19/09/05	1	14
19/09/09	1.3	21
19/09/12	1.6	21
19/09/13	1.6	22
19/09/20	2.3	21
19/09/23	3.4	20
19/09/24	1.4	22
19/09/27	1.4	22
19/10/02	1.6	23

ONDORIOAK

- **Komunitateko farmazialariaren zeregina oso garrantzitsua da Fibrilazio Aurikularra detektatzeko eta horrela ondorio larriak ekiditeko.**
- **Farmazialariak burututako elkarrekintzen detekzioari eta osasun-profesional desberdinen arteko elkarlanari esker pazienteen kontrol egokiagoa burutu daiteke.**
- **PA eta INRaren kontrola ezinbesteko zerbitzua da arritmia duen pazientearen balorazio eta jarraipena burutzeko.**

feuseelkartea@gmail.com

www.feuse.eus